

Loaren eta ametsen bitxikeriak.mp3

–Gaurko irratsaioan, loaren eta ametsen bitxikeriez arituko gara. Horretarako, Ana Irazola lankidea ibili da han eta hemen bila, eta oraintxe kontatuko dizkigu. Kaixo, Ana.

–Kaixo. Bai, hementxe batzuk. Ba al dakizu zenbat denbora egon daitekeen pertsona bat lorik egin gabe?

–Nik denbora gutxi, baina, ez dakit, 48 orduz?

–Askoz gehiago. Pertsona batek lortu duen gehieneko denbora 11 egun eta 25 minutukoa izan da. San Diegon izan zen, 1964an. Ikaragarria.

–Ai ama! Bai, sinestezina.

–Animaliei buruzko bitxikeria batzuk ere aurkitu ditut. Adibidez, lo gutxien egiten duten animaliak elefanteak dira; bi orduz bakarrik egiten dute lo.

–A ze luzea egingo zaien gaua!

–Tigreek, berriz, haurrek adina egiten dute lo, 16 orduz egiten dute gutxi gorabehera. Hala ere, oraindik bada gehiago egiten duenik: Koala. Egunean 22 orduz egiten dute, kasik ezer ez!

–Ez da gutxi, ez! Nik zalantza bat daukat: Koloretan ala zuri-beltzean amesten dugu?

–Denok ez omen dugu berdin egiten. Batzuek zuri-beltzean amesten dute, eta beste batzuek koloretan, baina, esaten dutenez, azken horiek pastel koloretan egiten dute.

–Bestalde, ametsekin lotutako hainbat bitxikeria ere topatu ditut. Zuk egunero egiten duzu amets?

–Ba, ez dakit, baina ametsak ez ditut egunero gogoratzen.

–Gogoratu ez arren, adituek diote normalean pertsonok lau edo zazpi amets izaten ditugula gauetz. Uste dute ametsak eguneko gertaerak prozesatzen laguntzen diotela garunari; beraz, ametsak izugarri garrantzitsuak dira! Gauero ez duzula ametsik egiten uste baduzu, esnatzen zarenean ahaztu egiten dituzulako izango da.

–Hori izango da, orduan.

–Beste bitxikeria bat: amets batean ikusten dituzun aurpegi guztiak bizitza errealean ikusi dituzun aurpegiak dira. Gure burmuinak ez du aurpegi berririk sortzeko gaitasunik; hortaz, zure azken ametsen aurpegi berri bat ikusi duzula uste baduzu, bizitza errealean ikusiko zenuen aurpegi bat da, segundo batzuek besterik ez bada ere.

–Hara, bai bitxia. Bukatzeko garaia iritsi zaigu, Ana. Oso interesgarria egin zait. Zer iruditzen zaizu entzuleei eskatzen badiegu izan duten ametsen bat idazteko gure foroan?

–Oso ondo. Eta nik bitartean ametsak interpretatzeko informazioa bilduko dut, kontatzen dizkigutenek zer adierazten duten azaltzen saiatzeko.

–Primeran. Beraz, badakizue, datorren asterako, idatzi zuen ametsak!